



## Iñaki Barcena

◆ EKOLOGISTAK MARTXANEKO KIDEA

# Trantsizio energetikoaz

EKOLOGISMOAK azken 50 urteetako ibilbidean bi ardatz nagusi izan ditu, biak banaezinak. Alde batetik, baliabide energetikoen krisia *Antropoceno* deitu berri den aro geologiko laburrean, eta bestetik, erregai fosilen konbustio hazkorragatik sorturiko beroketa efektua, honek dakarren aldaketa klimatikoarekin. Arazo bi, trantsizio bat.

TRANTSIZIOA ZERGATIK? Sostengarritasuna ez delako aukera gizateriaren eta biosferaren jarraipenerako, ezinbesteko prozesua baizik. Bestela: kaosa eta anabasa. Mad Max-en eszenatoki krudela eta bortitza. Dagoeneko gerra asko ezagutu dugulako energiaren liskarreatatik, Ukrainakoa azkena. Eta erregai eta lehengai fosilen agorreriatatik. Amalurra erraldoia da, baina mugak ditu eta petrolioaren erdia kontsumitu dugu jadanik (*peak oil*). Hemendik aurrera erregai fosilak garestiagoak, toxikoagoak, kaxkarragoak eta lortzeko zailagoak izango dira. Eta petroliorik gabe zer?

KUBAREN ADIBIDEA. Uhartre karibearrean petrolioaren falta nabarmena bizi izan zuten, 1989tik aurrerako Sobietar Batasunaren gainbehera izan zela eta, laguntza ezagatik eta Amerikako Estatu Batuen blokeoarengatik. Epealdi berezi horretan eta 90eko hamarkadaren erdira arte, kubatarrek gauza oren gabezia pairatu zuten. Itzalketak eta garraio eskasia, janari eta garbiketarako artikulua oinarritzaren falta. Pisuan, batez beste, kubatar bakoitzak 5,5 kilo galdu zituen "epealdi berezian". Baina atera ziren, Venezuelak eta Chavez-en laguntza etorri arte, borondate politikoaz eta jakinduri tekniko-intelektualaz, sozialismo kubatarrek asmatu

zuen herritarren arteko elkartasuna, nekazal iraultza permakulturala eta aldaketa sozio-politiko-administratiboak martxan jartzen. Konturatu ziren energetikoki oso menpekoak zirela (eta oraindik ere badira, energia berriztagarrietatik %4a besterik ez baitute ekoizten). Horrexegatik iraultza energetikoari ekin diote, 10 CUC billetea horren bozeramale dute. Ikasi dute, Errusiakoa bezala, Venezuelako petrolioak buka daitenkeela.

*Sostengarritasuna ez da aukera gizateriaren eta biosferaren jarraipenerako, ezinbesteko prozesua baizik (...). Dagoeneko gerra asko ezagutu dugu energiaren liskarreatatik, Ukrainakoa azkena*

ETA GU? Euskaldunok ere oso menpekoak gara. Zor izugarri handia eta goranzko pobrezia energetikoa ditugu baina ez gara lar kezkatzen. Teknokratak diote zer edo zer topatuko dugula petrolioaren ordez. Eguzkia energia iturburu "amaiezina" dugu, egia. Baina energia berriztagarri orok mugak eta inpaktuak dituzte. Trantsizioan, deshazkunde sostengarriaren bidetik ibili ahal izateko, energia erdua aldatu beharra daukagu. Erronka itzela. Gure artean ere, gero eta eragile gehiago gaude trantsizio energetikoaren alde. Baina nortzuk daude aurka? Hor dago koxka. ■

## IRITZIAREN LEIHOA

### BERTSO BERRIAK

Haritz Mujika



Doinua: Habanera.

### Julen Lopetegui

Futbolera dohainak zurekin daramatzazu modu hortan gailurrera heldu zara pausuz pausu. Taktikak arbel gainean preparatuz jo eta su, gero hamaika jokalarik egin diezaioten kasu. Harrokeriak ez dizu inoiz egin enbarazu haserako mutil jator eta umila zara zu. Lortutako lortzeko meritu latza daukazu mundu guztian ezagun egin duzu Asteasu.

Atezain zinen garaian a zer geldiketa sorta! Jokatu zendun Athletic eta Realaren kontra. Irabazi zenituen Liga ta Errege Kopa, Europako Errekopa bat eta hiru Superkopa. Ondoren entrenatzaile bezala zenbat borroka. Espainian eta Oporton horrenbeste anekgdota. Gaur herritarrok zugatik egin nahi genuke topa! Horra iristea gutxi batzuen esku dago-ta!

Zure lagunentzat Julen, arrotzentzat Lopetegui. Zure izena egunerok da kirol prentsan ageri. Maiz estrategiarekin jotzen duzu erdiz erdi, hortan zu baino hobeak ez dira egongo beste bi. Ametsa lortzeko bota duzu hainbeste izerdi ta ereindako hazia zuhaitz eder egin bedi. Zorionak denon partez zuri ta ingurukoeri ta aurrerantzean ere gaur arte bezala segi. ■

\* Bertsook kantatu zizkioten ekainaren 20an Asteasun egin-dako omenaldi-afarian.